

INFRAESTRUKTURAK: Jarduera garrantzitsuenak

Gure produktua aurrera eramateko lehenengo merkatuak behar duena aztertu behar da merkatu azterketa bat eginez. Gure edalontziek tamaina estandarra izango dute ekoizten dituen enpresa bati erosteko molde berrien erabilerarik gabe. Edalntzi horiek eskuratzean guk pertsonalizatuko ditugu biniloarekin. Gainera, drogak detektatu behar dituen mekanismoa diseinatu behar da. Kimikoen bitartez detektatu ahal izateko lehenengo proba ugari egin beharko dira. Gure edalontziak ingurumenerako jasangarriak izan behar dira: plastiko gogorrez eginak egongo dira festan erosten duenak behin eta berriz erabili ahal izateko. Seguruak kontratatzea ere inportantea da edozein eragozpeni aurre egiteko. Azkenik, gure produktuaren fidagarritasuna aztertu ondoren merkaturatu egingo dugu. Online denda bat jarriko dugu gure diseinu estandarrekin eta pertsonalizatzeko aukerarekin.

Horrez gain, gure diru sarreren zati bat ONG batera bideratuko dugu. ONG hau, guk sortu dugu, eta bere izena "BiziEdan Pasa Gabe" da, eta ONG-a sortzea erabaki dugu izan ere, gure edalontziekin egiten dugun eginkizunaz gain, lehenago sufritu duten biktimei ere lagundu egin nahi ditugulako. Gure ONG-an, bortxaketa, akoso... sufritu duten emakumeei laguntza psikologikoa eskainiko diegu. Inplikazio handia dugu erakunde honekin, gure produktuarekin lotura zuzena duelako, izan ere, gure edalontziak, horrelako egoerak sahiesteko balio dute.